

**OLASO
DORREA**
FUNDAZIOA

**2018 ko
EKITALDIAREN
MEMORIA**

2018ko jardun memoria

1 Olaso Dorrea etxearen mantenua

Olaso Dorrea bost mende baino gehiago dituen eraikina izateak mantenu eta berriztapen lanetan esfortzu eta inbertsio garrantzitsuak eskatzen ditu. Beste lan batzuen artean, mantenu hori egiteko, Fundazioak pertsona bat du kontratupean. Hona hemen ohiko garbiketak eta mantenuzko lanez gain 2018an egindakoen laburpena.


1.1 Altzarien konponketa lanak

Dorre barruko altzarien azterketa egin ostean, zenbait altzari pipiak jota zeudela eta ondorioz kaltetuak direla ikusi da. Inpregnazioz eta xiringa bidez tratatu dira.



1.2 Fatxadetan ate eta leihoen konponketak

Iparraldeko fatxadetan azterketa bat egin eta gero margo lanak eta leiho markoen juntak betetze beharra ikusten dira.





1.3 Eskailera nagusiko egurraren errestaurazioa

Eskailera nagusian, xilofagoen ondorioz kaltetua den egur zati bat saneatu egin behar dela ikusten da.



1.4 Hiru beirazko manparak aldatzea

Zurezko egituraren mugimenduak direla eta, pitzadurak zituzten hiru beirazko manpara aldatu dira, egokiagoak diren bitarteekin instalatuz.

1.5 Orokorrean kanpo eta barruko garbiketa lanak

-Alde berrien (JAKIUNDEren egoitza) fokuak garbitzen dira



-Urtean behin izaten den lez, aurten ere mantenuko lanak burutu dira. Teilatu hodiak garbitu, belarrak eta goroldioa kendu, teilak eta pesebreak aztertu etab.



- Olaso Dorreko kanpo aldean dagoen lorategiko mantenu lanekin jarraitu dugu. Bergarako Udalarekin sinatutako hitzarmen baten ondorioz, lorategi honek erabilera publikoa du egunean zehar. Mantenu lan handiak Udaleko lorezaintza zerbitzuak egiten dituen arren, egunerokoan egin beharreko mantenu eta garbiketa Olaso Dorrea Fundazioak kontratupean duen langileak egiten du, hala nola hostoak kendu eta harri txintxarrak txukundu (astean bi aldiz), ureztatu, inausketak txikiak egin eta huntzak atondu.



1.6 Ezarritako protokoloari jarraituz urteroko ikuskapenen fitxak

2012. urtean amaitu zen eraikinen zaharberitzearen ondorioetako bat eraikinaren mantenu sistematiakoaren beharra izan zen. Izan ere mota honetako eraikin askok (publiko zein pribatuak) eraikinaren zati/leku garrantzitsuetan mantenu falta izaten dute, eta gabezia horren ondorioz iraganean jasandako kalteak errepikatu egiten dira. Garrantzitsua da teilatuko teilak egoera onean eta ondo kokatuta egotea, euri urak bideratzen dituzten kanaloak eta hobiak osorik eta garbi egotea, instalakuntza elektrikoa zein estolderia instalakuntza egoera onean mantentzea etab. Gai hauen garrantziaz jabetua, Olaso Dorrean protokolo bat ezarri dugu, ondorioz urtero berrikusten dira eta ikuskapen bakoitzeko fitxa bat jaso eta mantenu liburu batean gordetzen da.

Adibide gisara 2018an betetako fitzak ditugu:

FICHA DE CONTROL DE MANTENIMIENTO Nº DE FICHA: 27

ZONA A CONTROLAR: CORNISAS DE PIEDRA

IDENTIFICACION: CORNISAS Y PISACULOS

CONTROL:

AFARACION DE HERBAS	SI	NO
DESPRENDIMIENTO DE JUNTAS DE MASA	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

OBSERVACIONES: Se ha procedido a la retirada de hierbas en los pisaculos. Las cornisas se encuentran en buen estado.

FECHA Y FIRMA: 2018-6-13
[Firma]

ESTADO DE REPARACION: Reparado

REPARACION EFECTUADA POR: Jabi

FECHA Y FIRMA: 2018-6-13
[Firma]

Vº Bº RESPONSABLE FUNDACION

FICHA DE CONTROL DE MANTENIMIENTO Nº DE FICHA: 28

ZONA A CONTROLAR: ESTRUCTURA DE CUBIERTA

IDENTIFICACION: TODA LA ESTRUCTURA
La obra se realiza sobre el interior

CONTROL:

PRESENCIA DE XILOFAGOS U HONGOS	SI	NO
PIEZAS EN MAL ESTADO	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

OBSERVACIONES: La empresa TSH (contra plagas) opina que no se precupade. Se sigue observando que el movimiento de vigas y traviesas, esta próximo a los bornes en diferentes puntos.

FECHA Y FIRMA: 2018-6-16
[Firma]

ESTADO DE REPARACION: Reparado

REPARACION EFECTUADA POR: Jabi

FECHA Y FIRMA:

Vº Bº RESPONSABLE FUNDACION

FICHA DE CONTROL DE MANTENIMIENTO Nº DE FICHA: 25

ZONA A CONTROLAR: PINTURA

IDENTIFICACION: Fachada norte

CONTROL:

PAREDES EN BUEN ESTADO	SI	NO
PUERTAS	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
VENTANAS Y BALCONES	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
ZOCALOS	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
SUELO Y ESCALERAS	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
MUEBLES	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

OBSERVACIONES: Se realiza inspeccion visual y se observa la necesidad de pintar las Ventanas y puerta de la fachada en cuestion.

FECHA Y FIRMA: 2018-6-11
[Firma]

ESTADO DE REPARACION: Reparado y pintado

REPARACION EFECTUADA POR: Jabi

FECHA Y FIRMA: 2018-6-18
[Firma]

Vº Bº RESPONSABLE FUNDACION

FICHA DE CONTROL DE MANTENIMIENTO Nº DE FICHA: 30

ZONA A CONTROLAR: Fachada Norte

IDENTIFICACION: Ventanas de izquierda

CONTROL: Ventanas juntas marcos y fachada

OBSERVACIONES: Hay cos entre marcos y fachada sin sellar. Practicamente en todas las ventanas.

FECHA Y FIRMA: 2018-6-11
[Firma]

ESTADO DE REPARACION: Reparado

REPARACION EFECTUADA POR: Jabi

FECHA Y FIRMA: 2018-6-11
[Firma]

Vº Bº RESPONSABLE FUNDACION

FICHA DE CONTROL DE MANTENIMIENTO N° DE FICHA: 25

ZONA A CONTROLAR: Interior de la torre

IDENTIFICACION: Muebles

CONTROL: se observan "deterioros" por motivo de xilofagos (carcoma)

OBSERVACIONES: Con liquido anticarsocida y por diversos procedimientos se tratan los muebles afectados.

FECHA Y FIRMA: 2018-1-13 [Firma]

ESTADO DE REPARACION: efectuada

REPARACION EFECTUADA POR: [Firma]

FECHA Y FIRMA: 2018-1- [Firma]

V° B° RESPONSABLE FUNDACION

FICHA DE CONTROL DE MANTENIMIENTO N° DE FICHA: 26

ZONA A CONTROLAR: FALDONES DE CUBIERTAS

IDENTIFICACION: Todos los faldones

CONTROL:

	SI	NO
PRESENCIA DE HUNDIMIENTOS	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
MOVIMIENTO DE TEJAS	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
PERIBRES EN BUEN ESTADO	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

OBSERVACIONES:

FECHA Y FIRMA: 2018-6-13 [Firma]

ESTADO DE REPARACION:

REPARACION EFECTUADA POR:

FECHA Y FIRMA:

V° B° RESPONSABLE FUNDACION

FICHA DE CONTROL DE MANTENIMIENTO N° DE FICHA: 31

ZONA A CONTROLAR: Fachada Este

IDENTIFICACION: Ventanas

CONTROL: juntas entre marcos y fachada numerosos huecos y la antigua masa se desprende

OBSERVACIONES: se procede al saneamiento de juntas y se taparon los huecos con cemento rapido

FECHA Y FIRMA: 2018-8-21 [Firma]

ESTADO DE REPARACION: Reparado

REPARACION EFECTUADA POR: [Firma]

FECHA Y FIRMA: 2018-10-19 [Firma]

V° B° RESPONSABLE FUNDACION

FICHA DE CONTROL DE MANTENIMIENTO N° DE FICHA: 32

ZONA A CONTROLAR: CANALONES DE CUBIERTAS

IDENTIFICACION: Todos los canalones

CONTROL:

	SI	NO
PRESENCIA DE FUGAS	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
GANCHOS DE SUJECION EN BUEN ESTADO	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
PRESENCIA DE HUNDIMIENTOS	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
LIMPIEZA EN BUEN ESTADO	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>

OBSERVACIONES: Se observa suciedad en distintas zonas y se procede a su limpieza

FECHA Y FIRMA: 2018-12-21 [Firma]

ESTADO DE REPARACION: [Firma] solucionado

REPARACION EFECTUADA POR: [Firma]

FECHA Y FIRMA: 2018-12-21 [Firma]

V° B° RESPONSABLE FUNDACION

2 Fundazioaren ekimenak

2.1 JAKIUNDEREN jarduna

JAKIUNDE Akademiarekin sinatutako hitzarmenari jarraikiz, Bergaran izaten den lez, 2018ko abenduaren 9an ere plenarioa egin zuten JAKIUNDEkoek. Fundaziotik zerbitzua eskaini zitzaien eta bileraren antolaketak eskatzen zituen gastuei aurre egin zaie. Horretaz gain, JAKIUNDERen egoitza urte osoan zehar mantenu eta zaindu du Olaso Dorrea Fundazioak, bulegoen eta azpiegituraren mantenua barne, baita igogailua, telefonoa zein argindarraren ordainketa.



The screenshot shows a news article on the 'goiena' website. The header includes the 'goiena' logo and the word 'DEBAGOIENA'. The article title is 'Daniel Innerarity eta Ana Zubiaga, Jakiundeko kide berri'. Below the title is a group photo of the Jakiunde board members. To the right of the photo is a promotional banner for 'IRAILAK 14 BUESA ARENA' with the website 'humanityatmusic.com'. The article text below the photo reads: 'Gaur, azaroak 9, ohiko osoko bilkura egin du Jakiundek Euskal Herriko zientzia, arte eta letren akademiak Bergarako Olaso dorrean eta bertan, besteak beste, bi kide berri izendatu dituzte: Daniel Innerarity eta Ana Zubiaga. Horrez gain, kide urgazle gisa izendatu dituzte Itziar Alkorta, Juan Jose Alvarez, Justo Lakuntza eta Diego Lopez de Ipiña. Gaur egun, 83 kide ditu akademiak.'

JAKIUNDEko Batzar Nagusia Goienan jasota:

2.2 Bergara Zientziaren “Leku Historiko” dela eta Olaso Dorreari bisita.

Elhuyar anaien wolframio aurkikuntzari esker, Europako Fisika Elkarteak (European Physical Societe, EPS) Bergara Zientziaren “Leku Historiko” izendatu du aurren. EPSko presidentek, Rüdiger Voss-ek, sari garrantzitsu hau eman zion Bergara herriari urriaren 20an.

1783an Elhuyar Anaiak wolframioa isolatu zuten lehenak izan ziren Bergarako Seminarioan irakasleak zirenean. Real Seminario honen sorkuntzaren ideia Euskalerrriaren Adiskideen Elkartean (Real Sociedad Bascongada de Amigos del País) eman zen eta Elkarte honek Olaso Dorrearekin lotura zuzena du. Bere fundazioa 1674ko Irailean zaldun batzuek (Miguel Jose de Olaso Zumalabe haien artean) Olaso Dorrea bertan hala erabakita eman zen. Hori dela eta, Bergara saria entregatzera hurbildu ziren zientzialari talde handi batek, Olaso Dorrera bisita bat egin zuten, Jose Luis Elkoro gure Fundazioaren presidentek, anfitrioi gisa eginez.



Zientzialari taldea Olaso Dorreko atarian




Jose Luis Elkorok Euskalerriko Adiskideen eta Olaso Dorrearen arteko lotura azaltzen

2.2 *“Telesforo Monzon aristokrata abertzalea” liburua*

2018ko Ekainaren 21an Txertoa argitaletxeak Pako Sudupek idatzitako “TELESFORO MONZON aristokrata abertzalea” liburuaren aurkezpena egin zen Olaso Dorrean. Fundaziotik zerbitzua eskaini zitzaien eta bileraren antolaketak eskatzen zituen lanei aurre egin zien.







Liburuaren aurkezpena Olaso Dorrean

2.3 Argazki fondoaren osaketa eta digitalizazioa

Ia zazpi mila argazkiko fondoari dagokionez, j data basean argazkien informazioa sartzen arraitzen da. Horretarako, lehenik eta behin, argazkian bertan begiratzen dugu, ea idatzizko daturen bat agertzen den. Oso gutxitan agertzen da hau, beraz, interneten begiratuta, Olaso Dorrean diren zenbait argitalpenetik (Enbata, Punto y Hora, etab.) eta Monzon familiarekin lotura izan duten hainbat lagunekin alderatuz egiten ari gara argipen lan hau. Zailtasunak zailtasun, sortzen ari garen data basea osatua da eta etorkizunean kontsulta publikorako tresna baliotsua izango da.





2.4 Artxiboen kudeaketa

Artxibora kontsultak egitera etorri diren ikerlariei arreta. Olaso Dorrean kokatuta dagoen artxibategi historikoan kontsulta egiteko eskaerak gero eta maizago ematen dira, eta dedikazio garrantzitsua eskatzen dute. Izan ere, artxibategian bertan ezin dute bisitek “eskua sartu”. Artxibategiko dokumentuen

zerrenda eskaintzen zaio bisitariari eta honek interesatzen zaizkion dokumentuak identifikatuta, Olaso Dorreko langileak artxibategitik atera eta kontsultarako uzten dizkio. Horretarako eta era duinean lan egin ahal izan dezan, ikerlariari bulego bat eskaintzen zaio. Era honetan artxibategiko dokumentazio guztia kontrolpean dagoela eta modu egokian zaintzen dela ziurtatu dezakegu.

2018 urtean Olaso Dorrean bertan izan ditugu kontsultak garrantzitsuenak honakoak dira:

- Pako Sudupe, Telesforo Monzonen biografia idazten aritu da. Egonaldi luzeak egin ditu 2018 urtean zehar artxibategia kontsultatzen. “Telesforo Monzon Aristokrata Abertzalea EAJtik HBra: bilakaera politiko-kulturala” liburua, 2018 urtean aurkeztu da.

Bisita fisikoez gain, ugari izan dira Olaso Dorrea Fundazioaren jabego pean baina Euskaltzaindiak gordailuan duen Lacombe fondoaren bildumako lanen kontsulta eskatzen duten ikertzaileak. Kontsulta eskaera guzti hauek Euskaltzaindiako langile batek jasotzen ditu eta Olaso Dorrea Fundazioari baimen eskaera luzatzen dio. Normalean ez da arazorik izaten eta baimenak onesten ditu Fundazioko Lehendakariak.

Ugari izan dira bai artxiboa, bai biblioteka, kontsultatu dutenak. Erabiltzaile nagusiak Euskal Herriko ikertzaileak dira, bereziki historialari eta filologoak, horietako batzuk euskaltzainak eta hainbat unibertsitateko irakasleak (Euskal Herriko Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Deustuko Unibertsitatea). Bada bestelakorik ere adibidez, euskal idazleak.

2.5 2018ko urtean antolatutako ekitaldiak

-Ez da ekitaldirik egin